



Astekaria



elgoi



Heriotzak banandu arte?

**IRAKASLE
ELKARTEA**

ZEZENBIDE

San Frantzisko 43 • ☎ 74 27 20 • ELGOIBAR



auto-eskola

*izena ematean
%10eko beherapena
Gazte Txartelarekin*



M Eskerrik asko zuen konfidantzarekin gure lana estimatzeagatik

BAZKIDE
KOPURUA
%10a igo da
IGERIKETA

AEROBIK +
GIMNASIA
% 57a igo da
AKUAEROBIK

KARATEA
% 7a igo da
IGERIKETA
% 45a igo da

*Udaberrian
zatoz
zu ere*

SAUNA ETA
MASAIA
500 erabileratik gora
hileko



*Udaberriari
begira % 20a merkeago*

✿ BAZKIDE TXARTELA
% 20a merkeago
martxoaren 25etik
aurrera.

✿ PODOLOGIA
ZERBITZUA Aste
Santutik aurrera

✿ SHEErako (IVEF)
prestakuntza
IKASTAROA
Aste Santutik aurrera.

✿ "BAILES DE SALON"
Aste Santutik aurrera.

✿ MASAIA IKASTAROA

✿ PALA BINAKA ETA
SQUASH TXAPELKETA
Aste Santutik aurrera.

✿ Hamabostero, lehen
hezkuntzako ikasleentzat
ekitaldi bereziak
igerilekuan larunbat

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA:

Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldeggi, Marivi Agirregomezkorta, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Idoia Esnaola, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.600 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa fundazioa
fundación kutxa



Gure etorkizuna

Joan den asteko **BARREN**en azalak Erreminta Makinaren eskaparatea erakusten zigun, Bilbon burutzen ari zen Erreminta Makinaren Biurtekoari erreferentzia eginez.

Ferian egon ginenok emozio berezia sentitu genuen gure gorputzean erreminta makinaren salmentan eta fabrikazioan buru-belarri ari diren gure herriko pertsona haien guztien energia berritua ikustean.


Lantegietako langileekin gai honi buruz hitz egiten aritu ginenean, lanpostuaren ziurtasun ezak egonezina sortzen duela gaur egun adierazi ziguten. Batetik, joan den urteotan jasan dugun krisiak, urte mordo batean lanean gauden pertsonoi bizitza osorako zen lanpostu ziur hori desagertu egin dela erakutsi digu. Era berean, berrogeita hamar urtetik behera dugun langileoi egonezina sortzen zaigu hainbeste urtetan Seguritate Sozialari ordaintzen

jardun eta gero, gure jubilazioaren etorkizuna ez dela bat ere ziurra entzuten dugunean behin eta berriz komunikabideetan.

Gure herrian gorakada ekonomikoaren eragina igarriko den une historiko honek gure etorkizunaren inguruan hausnarketa sakona egitera eraman behar gaitu. Posible den heinean, etorkizuna ziurtatzeko modua zein izan daitekeen planteatu beharko dio nork bere buruari. Gaur egungo merkatuak gure neurrira egindako aurrezki mota askoren artean aukeratzeko ahalmena eskaintzen digu. Hau horrela izanik, nagusitzen garenean ez dugu gure ilusioen artetik ezabatu behar izango bizimodu maila duin bat izateko eskubidea. Era honetan gure generazioko gizon eta emakumeek eguzki epelaren babesean neguak ondo baino hobeto igarotzeko aukera izango dute Mediterraneoko kostaldean.

Marivi Agirregomezkorta

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



- Emakume bat etorri zaigu bere alabari umearen kotxe-sila harrapatu diotela salatzerara. Gainera, etxeko portaletik harrapatu omen diote, "ez dago eskubiderik" esanda alde egin du haserre bizian.

- Arregitorreko atzealdean, autopistako zubiaren ondoan dauden kolupio eta eskilara inguruak txukuntzeko eskatu nahi diote Udalari 9 eta 10 urteko neska-mutil batzuek. Itxuraz, belarra dago bertan eta euria egiten duenean lokatzez betetzen ei da inguru guztia.

- Ikastolako ikasleek Regina andereñoa txalotu nahi dute astelehenean Ikastolan izan zen piano kontzertuagatik. Era beran, kontzertua eskaini zuen Xabier Lizaso oriotar pianojolea ere txalotu nahi dute.

- San Rokeko bizilagun batzuek deitu digute auzo horretan apurtu ziren tuberiak konpontzen aritu ziren langileak txalotzeko. Gaueko 12,30ak arte egon omen ziren lanean eta hau eskertzekoa dela iruditzen zaie.

- Elgoibarko nesken futbol taldea txalotu nahi duten neska batzuek etorri zaizkigu. Saikapenean lehenengoak geratu dira eta horregatik zorionak eman nahi dizkiete.

Zer sinets dakioko Garateri?

Elgoibarko alkatea den Guillermo Garatek deklarazio batzuk egin berri ditu Herri Batasunari buruz. Kultura Batzordeburu zela aurreko legealdian Garatek apenas bilerarik konbokatzen zuen. Ezkutuan egiten zituen gauzak, harreman pertsonalak bideratuz, batzordean ezer ere esan gabe.

Alkate denetik ildo beretik jarraitu du. Kanposantuaren proiektua bere kabuz eman zuen argitara, batzordean ezer ere esan gabe. Liburutegiko ordezkoen gaia ez da kultura batzordean hitz egin. Herri Batasunaren mozioak gai ordenatik kentzen ahalegindu zen. Mankomunitateaz, DEBEGESAz, DEBEMENEz eta abarrez ezer ez dakigu, hitz onak, promesak, besterik ez daukagu.

Orain, gainera, gezurti bezala azaltzen zaigu HBri bere eginkizunetan zabarkeria leporatzerakoan. Herri Batasunak Udal Hauteskundeetan aurkezturiko programa aurrera eramateko ahaleginetan dihardu: herriaren partehartzea bultzatzen, Udal Demokratiko baten alde, ustelkeriaren aurka, euskarari behar duen garrantzia emateko eskatzen, gazteen borroka bultzatzen... Horretarako herriarekin kontaktuz eta

Udaletxean parte hartuz. Herri Batasunaren partehartzea Udaleko batzordeetan %84koa da, Legealdi hasieratik otsailera arte.

Gezurretan dabil, beraz, Garate. Badauka Garatek nora begiratu eta zer egin gezurretan ibili gabe: pertsonalaren egoera irregularrak aztertu, Delegazioak martxan jarri, ez bakarrik dirua kobratzeko.

Bukatzeko, galdera bat: hemendik aurrera, zer sinestu ahal izango zaio Garateri? Eta zer ez?


Elgoibarko Herri Batasuna

Irakurle!

Atal hau zure eskutitzen zain dago. Eskutitzek gehienez 20 lerroko luzera izango dute eta izen abizena eta NANA beharko dute izan. Argitaratzerakoan, igorleak hala eskatuz gero, inizialak bakarrik ager daitezke. Zuen eskutitzen zain gaude!

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua ere **Kontxa Azkuek** lagatakoa da. Sinestea zaila bada ere, Elgoibarren ateratako erretratua da, baina 1920an.

Julianek eta Kontxak esan digutenez, San Roke eta San Lorentzo artean zegoen leku zoragarri hau. Urak, berriz, Karakartetik jaisten zirenak dira. Hartziko bidea ere zoragarria da; trenbidean hasi eta San Rokeraino horrelako bidea omen zegoen.

Udaberrian sartu berriak garenez, aproposa iruditu zaigu horrelako erretratu eder bat ateratzea. Autopista egin zutenean txikitu omen zuten inguru guztia. Aurrerakuntzaren izenean askotan atzeraka goazela ematen du.

Ikus dezagun zein diren hain egoki jarrita dauden emakumezkoak: Behean, **Emeteria Mugerza** (†), **Lola Bidaurreta** (†), eta **Anjelita Azkue** (†). Goian ezkerrean, **Pepita Ibieta** (†) eta **Jesusa Barrenetxea** (†). Goian eskubian, **Saturina Ziaran** (†) Plaza Txikiko azken maistra izandakoa eta azkena, ezezaguna.

OHARRA: Joan den asteko erretratuan bi pilotari izenik gabe agertu ziren. Irakurle batek deitu digu bi pilotari hauek elgoibartarrak direla esateko eta euren izenak ere eman dizkigu: ezkerrean zegoena **Erasmus Unzueta da** (†), eta eskumakoa **Valentin Aizpitarte "Zelandi"** (†).

Garajeak **salgai** San Roke 12-14an

**ESKAINTZA
BEREZIA**

**SARRERA
EGOKIA**



**INFORMAZIOA
ETA SALMENTA:**

**JUARISTI
bulegoa**
Ubitarte 2, behea
Tel. 74 13 33
ELGOIBAR

Bikoteen hari meheak

“Heriotzak banatu arte” elkar maitatuko dutela agintzen dute bikoteek elizaz ezkontzen direnean. Garai batean, jendea betirako ezkontzen zen, seme-alabak izan eta nola edo hala harremana mantentzen zen. Batzuetan maitasunarekin, besteetan inertziaz edo ohitura hutsez. Gaur egun gauzak aldatu egin dira. Gizartea bera ezberdina da, gauza guztiak epe baterako izaten dira. Lan fikorik ez dago, gaur batean eta bihar beste toki batean bizi gara, urtaro bakoitzean arropak aldatu egiten ditugu, kotxea bera ere ez da bizitza osorako... eta, maitasuna badirudi ez dela hain sendoa. Estatistiken arabera, gero eta bikote gehiago banatzen dira, 1981etik, 750.000 bikote banatu dira Estatuan. Eta banaketak, hainbat arazo sortzen ditu.

Seme-alabak izan ohi dira kaltetue-
nak erlazio bat ete-
ten denean. Guz-
tiok dugu ezagun
banaketen ostean, haurrak
noren esku geratzen diren
erabakitzea, zenbateko
pentsioa pasatu behar dion
gizonak emakumeari eta
jabetzen banaketak zeinen
gatazkatsuak izaten diren.

Arazo legalez gain, bikote edo familia izatetik, bestelako bizitza berri bati ekiteak ere aldaketa ugari suposatzen du. Aurriritzi asko dago oraindik ere gizartean, batez ere herri txikietan.

Ez da erraza izaten. Elkarbizitza zaila denean onena banatzea izan daiteke, baina erabakia hartu

eta gero ere, denbora behar izaten da gauzak bere onera etor daitezen.

Hauen guztien aurrean, hainbat eta hainbat elkarte sortu izan dira. Horietariko batzuk mistoak dira eta hauetara banatuek jendea ezagutzera jotzen dute batez ere. Beste batzuk, aldiz, gizonezko edo emakumezkoen osatuta egoten dira eta azken hauetan, legearen aurrean elkartu eta gauzak lortu nahi izaten da.

Aiten Etxea

Aiten Etxea 1996ko otsailaren 11n sortu zen Ermuan. Elkartean seme-alabak dituzten gizonezko guztiak har dezakete parte, bai banatuek, diborziatuek bai eta ezkongabeek ere

Banatu eta 18 urte geroago

- Hiru urte t'erdia egin zenituen ezkontuta. - Bai, eta 18 daramatzat banatuta.

- Erlazio hartatik bi alaba geratu zaizkizu. - Bai. Banatu ginenean batak 2 urte zituen eta besteak bi hilabete. Biak geratu ziren nirekin.

- Zuk hala eskatu zenuelako? - Ez nuen beste aukerarik izan, neu nintzen ama.

- Askok aldatu al zen zure bizitza?

- Bai, asko. Nire alabak aurrera atera ahal izateko gauza asko egin behar izan dut. Hasieran pensio bat jaso nuen baina gero utzi egin zion bidaltzeari. Elgoibarrera etorri eta gurasoen etxera joan behar izan nuen. Beraien laguntzari esker egin dut aurrera.

- Alabek zenbatean behin ikusten dute aita? - Gaur egun urtean behin. Aita Alicanten bizi da eta oporretan

M. Karmen Del Prado



joaten dira bertara.

- Atzera egiterik bazenu? - Ez nuke nire lana utziko eta ez nituzke alabak izango, asko lotzen dute. Bizitza ezberdina izango litzateke, nire bizitza izango litzateke. Halere, ez naiz damutzen. Nire alabengatik egin dudak guztiaz harro nago eta zoragarririk dira.

- Guraso banatuen elkarte bateko kide izan zara, ez? - Bai, Eibarren lehenik eta Bilbon gero. Jendea ezagutzeko oso ondo daude. Orain, alabak nagusitu diren neurrian hasi naiz ni kalera ateratzen. Astebukaerak Bilbon pasatzen ditut, lagun baten etxean.

- Berriz ezkontuko al zinateke?

- Pertsona egokia topatuz gero bai, baina oso zaila dela uste dut. Garbi daukat zer nahi dudak eta hori aurkitzea ez da bat ere erraza.

eta helburua, legearen aurrean gizona emakumearen parean egotea da. Aitz Landa lehendakariaren hitzetan, “badirudi orain arte gizonok ez gine-la gai gure seme-alabak behar bezala zaitzenko, hezitzeko eta maitatzeko. Hori ez da horrela, legearen aurrean diskriminatuak gaude eta guk berdinketa nahi dugu. Gaur egun, emakumeari ematen zaio kustodia, guztiona den eskubidea ukatzen zaigularik. Zehatz mehatz, kustu-dien %93a emakumeen esku geratzen da”. Aiten Etxeak banaketa izan baino lehen, bitartean eta gero ere informazioa eskaintzen du eta horretarako behar dituen zerbitzu juridikoak ditu.

Helburuak eta aldarrikapenak

Elkarteak hainbat eta hainbat aldarrikapen ditu. Besteak beste, seme-alaben kustodia bien artean, amaren eta aitaren artean



izatea nahi dute. Bisiten erregimenari dagokionean, Angel Romero lehendakariordeak azaldu duenez, “gure ustez aitaren eta bere seme-alaben arteko komunikazioak irekia behar du izan eta ez epaile

batek zehaztua”. Era berean, elkartekideen iritziz, seme-alaben pentsioa aitaren eta amaren artean banatu behar da, bakoitzak %50a emanaz. Dena dela, garbi utzi nahi dute beraiek ez daudela emaku-

meen aurka, euren ustez bidezkoa eta oinarrizkoa duten eskubideak defendatzearen baino ez dira elkartu eta gauza bera egitera animatu nahi dituzte egoera beretsuan aurkitzen diren gizonak.

Banaketa eta 2 urte geroago.

- Zenbat urte ezkontuta?

- 15 urte egon nintzen ezkontuta eta bi daramatzat banatuta.

- Gatazkatsua izan zen zure banaketa, ez?

- Bai, oso. Egun batetik bestera, etxean nengoela zitazio bat iritsi zitzaidan banaketaren berri emanaz. Nik ez nuen idearik ere, emaztearekin bizi nintzen eta nire aurka egiten zituen salaketak gezur hutsak ziren.

- Norekin daude seme-alabak?

- Semeak, gaur egun 16 urte dituenak, nirekin joan nahi zuen bizitzera baina epaileak amaren esku utzi zuen. Gaur egun nirekin bizi da baina etxetik ihes egin zuelako. Tratamentuan dago psikologo bate-



Aitz Landa

kin eta berak esan didanez, nirekin dagoenetik hobeto dago, askoz hobeto. Bost urteko alaba bikiak amarekin daude eta berak bultzatuta nire aurkako jarrera igarri dut.

- Denuntziarik sartu al duzu?

- Horixe baietz, eta bukaerara arte jarraitzeko asmoa daukat. Emakume hori ez da gai ustez nire alabak direnak bere esku izateko.

- Ustez zure seme-alabak?

- Epaileak amaren esku utzi baditu, beharbada nireak ez direlako izango da, ez?

- Zein da zure mezua?

- Berdinketa nahi bada, alde bietatik izan dadila, gizonak diskriminatuak gaude gai honetan. Zerbait egin beharra dugu.

Maitasuna betirako al da?



PURI LINARES

29 urte, etxekoandrea

Bai. Pertsonaren arabera-koa da eta bikotearekin zein harreman daukazu ere kontuan izan behar da. Bakoitzak bere aldetik zerbait jartzen badu, betirako manten daiteke.



MIREN ZABALA

23 urte, ikaslea

Maitasuna kanbixau eitzen da urtekin, diferentia da. Desagertu ez, beti egoten da zeozer, kariñua edo... Lehenengo eguneko maitasuna mantentzia zaila da.



AGURTZANE OPAKUA

33 urte, ikaslea


Zaila da bizitza guztirako mantentzia, urtekin ohitxura bihurtzen da. Hortan sinistia danontzako esperantzia da baina pertsonak aldatu eitzen gera eta bizitza ez da berdina beti.



XABIER PRADO

16 urte, ikaslea

Bai. Pertsona egokixa topatzia izaten da. Zure bikotiakin nola eramaten zeran da kontua. Asperetzen bazera edo haserretuta bizi bazera ez da posible baina bestela bai.



ADOLFO LOBETE

66 urte, jubilatua

35 urte daramatzat ezkontuta eta maitasunak irauten du. Noiz arte ez dakit, indarra eduki behar da. Maitasuna betirako izango den esperantza desagertzen bada, akabo dena.



J. IGNACIO URKIDI

36 urte, baserritarra

Baietz uste dot. Hasieran sentitzen dozuna eta gero-koa diferentia dira. Bikote aproposa topatuz gero, posible da bizitza guztirako maitasuna sentitzea. Hori bilatzen dogu danok.



VIAJES EROSKI

BI D I A K

Prezio Onak
baino gehiago

SALOU OFERTA (Busa + alo.)

apirila 8-14 7.450 pta

C. Sol 23.950 pta.

Almeria 25.800 pta.

Ruta Colombina 30.900 pta.

Mallorca 41.900 pta.

Kanariar Irlak 58.000 pta.

Madril 24.250 pta.



Portugal-Galizia 38.900 pta.

Venezia 31.550 pta.

Venezia-Florenzia 33.475 pta.

Florenzia-Erroma 36.350 pta.

Paris 27.800 pta.

Amsterdam 38.075 pta.

Bruselas 31.550 pta.

Ginebra 34.425 pta.



Erroma (abioia) 68.950 pta.

Praga (abioia) 63.575 pta.

Tunez (abioia) 48.800 pta.


Marrakech (abioia) ... 68.300 pta.

Londres (abioia) 66.800 pta.

Toribio Exeberria, 3 - 20.600 EIBAR - TEL.: (943) 11 15 69 · FAXA: (943) 11 40 67

GUREA NEURRIRA EGINDAKO LANA DA

BARREN astekaria - Publizitate Saila - Tel. 74 41 12



2.000 pezetatik aurrera

■ Itxaropena abesbatzaren kontzertua Parrokian

Hil honen 30ean Elgoibarko Itxaropena abesbatzak, Jose Luis Franzesena organo jotzailearekin batera, kontzertua eskainiko du San Bartolome parrokian arratsaldeko 8etan. Kontzertuak bi zati izango ditu. Lehenengoan Jose Luis Franzesenak bakarrik joko ditu honako obra hauek: J.S. Bach-en “Fuga hirukoitzean preludea” (Mi bemol nagusian) eta Dubois-en “Toccata”. Bigarren zatian Itxaropena abesbatzak zortzi obra abestuko ditu: “Popule Meus”, “Oh Bone Jesu”, “Domine Jesu Christe”, “Oh Jesu Christe”, “Ave Maria”, “Cor Jesu Melle Dulcius”, “Jesus blebeit meine frende” eta “Cantata BMW 147”.

■ EAJren Batzar Orokorra astelehenean


Elgoibarko EAJ alderdiko Uri Buru Batzarrak hilaren 25ean, astelehena, gaueko 9etan Foruen Plazako Batzokian izango den urteko batzar orokorrerako deia luzatu nahi die alderdikide guztiei. Batzarrera joango direnei ordurako han izatea eskatzen zaie.

■ Olaizaga Igeriketa taldekoen emaitzak

Olaizaga Igeriketa Taldeko igerilariak Legazpin izan ziren pasa den asteburuan eta fin aritu ziren. 100 metro tximeleta lasterketan parte hartu zuen Aingeru Osorok 1'46"08ko denbora egin zuen. Partehartzaile guztien artean denborarik onena izan zen Aingeruena eta 2'57tan jaitsi zuen bere errekor pertsonala. Aipatzeko modukoa izan zen Asier Ajurigerak 50 metro tximeletan egin zuen denbora, 50"95 ehunenekoa, izan zela, bere marka pertsonala hobetu zuelarik. Hauez gain, beste hiru igerilari ere izan ziren Legazpin. Iker Astigaragak 59"48 ehunenekotan burutu zuen 50 metroko distantzia tximeleta estiloan. Iñigo Canalesek 1'01"05ko denbora egin zuen eta Miren Esnaolak 1'17"20koa.

Udaberrian gaude

Martxoaren 20an, goizeko 9ak eta 3 minutuan hasi zen udaberria. Eguna luzatzen hasia da dagoeneko, tenperatura igotzen, eguzkia kazkarrak berotzen, arropak arintzen, alergiaren sintomak azaltzen, txoriak kumeak egiten, loreak inguruak apaintzen... udaberria iritsi den seinale. Aldaketa sasoi honetan depresioak ere ugaritu egiten ei dira. Urteko lehen tenporak otsailaren 28an eta martxoaren lehen egunetan izan ziren. Egun horietako eguraldiak esan ohi du zer-nolako eguraldia espero dezakegun udaberrian. Freskoa eta hotza izango dela esan dute; eguzkia eta euria ere tartekatuko dira eguraldi gizonen iragarritakoaren arabera. Maiatzaren 29 eta 31n eta ekainaren lehen izango diren bigarren tenporek zelako uda



izango dugun esango dute. San Juanetan, beraz, udaberriari agur eta ongietorria emango zaio udari.

■ Hildako Jeltzaleen aldeko meza

Elgoibarko EAJko Uri Buru Batzarrak Jesus Mari Leizaola eta Jose Antonio Agirrereren heriotzen urtemuga dela eta, hildako alderdikide guztien aldeko meza antolatu du. Elizkizuna larunbatean, hilak 23, arratsaldeko 7etan izango da San Bartolome parrokian.

■ Aberri Eguna

EAJ/PNV alderdiak Aberri Eguna ospatuko du Donibane Lohitzunen apirilaren 7an, Pazko igandean. Saio politikoa eta Jai-Alai pilotalekuan bazkaria izango da. Hara joateko autobusa antolatu du Elgoibarko EAJk. Izena emateko 74 27 44 zenbakira deitu lehen bait lehen.

■ Mural lehiaketa antolatu dute Antimiliek

Elgoibarko Talde Antimilitaristak antimilitarismoa eta intsumisioari buruzko mural lehiaketa antolatu du. Muralaren bozetoak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira maiatzaren 3an baino lehenago. Bozetoak izenik gabe eta telefonoa eta izen-abizenak sobre itxi batean bozetoaren atzealdean itsatsirik aurkeztu beharko dira. Irabazleak murala margotu beharko du Antimiliko kideen laguntzaz. Materialea Talde Antimilitaristak jarriko du. Irabazlearentzat 20.000 pta.ko saria egongo da baina lanek gutxieneko kalitatez ez dutela erabakitzen badute epaimahaikoek, ez da saria emango.



Herriko Aisialdi Batzordea eratu da

Elgoibarko Izarrako Atxutxia- maika Begirale Taldeak datozen hiru urteetarako prestatu duen plangintza koordinatu, gainbegiratu eta baloratu duen Aisialdi Batzordea sortu da. Herriko hiru ikastetxeko irakasle eta guraso banak eta Aisialdi Taldeko zuzendariak osatzen dute batzordea. Batzordekideak hauexek dira: Herri Eskolatik Amaia Jauregi eta Izaskun Estibariz, Ikastolatik Alfonso Guilló eta Juan Mari Elustondo eta Pilar ikastetxetik Maria Pilar Alonso eta Juani Arakistain. Batetik, irakasleen iritzia, aportazioa eta pre-

sentzia eta bestetik, gurasoen parte-hartzea batzea nahi ditu Aisialdi Batzordeak. Atxutxiamaika taldeak antolatzen dituen iharduera guztien berri, bakoitzak bere ikastetxeetako guraso eta irakasleei jakinaztea da eratu berri den talde honen helburua. Era berean, iritzi, aportazio, galdera eta bestelakoak bertan azaltzea du asmoa. Aisialdi Batzordeko ardurdunen esanetan, "batzordearen funtzionamendua egokia izan behar dela deritzogu haurrentzako Aisialdi Plangintza serioa eta osatua izan dadin".

■ Ur, zabor eta estolderia zergak

Ur, zabor eta estolderia zergen lehen hiruhilabeteari dagozkion ordainagiriak ordaintzeko azken eguna hilaren 30a izango da, goizeko 11etatik 1era bitartean Udal bulegoetan, larunbatik barne. Epea pasatu eta ordaindu ez dutenei %20 gehiago kobratuko zaie. Ordainketa errazteko ordainagiriak helbideratzea gomendatzen du Udalak. Informazioa jaso edo zalantzak argitzeko 74 44 14 zenbakira deitu.

■ Emakumeen enplegu orientatzaile ikastaroa

Datorren apirilaren 15etik irailaren 16ra bitartean emakumeei zuzenduriko lan orientatzaile eta bilatzaile ikastaroa burutuko da Elgoibarren, emakumearen aukera berdintasunerako Now programa europarraren barruan. Tituludun emakumeak, lan egoera kaxkarrean edo langabezia daudenak izango dute ikastaroan parte hartzeko aukera. Izena emateko Udal Ongizate Sailera edo DEBEGESARA zuzendu (74 10 08 - 10 23 47).

IMHn garatutako CD Rom-a

Erreminta Makinaren Institutuko Heziketa Iraunkorreko Sailak garatu berri duen autoikaskuntza produkzioan gaiari buruzko AEP CD Rom-aren aurkezpena izan zen hilaren 13an aipatu ikastetxean. CD-Rom honek sektore metal-mekanikoko produkzio zentro batean gara daitezkeen ekintza mota ezberdinak dituen ereduak ditu, besteak beste, erreminta makinaren muntatu eta mantentzeko modeluak. AEP CD-Rom hau IMHko ikasle eta langileen artean egin dute. CDak dituen heziketa espezialitateen artean mekaniko berifikatzailea, mantenu industrialeko elektromeka-



nikoa, kalitate inspektzio eta kontrol estatistikoko teknikaria, CNC tornuko programatzailea, operatzaile

mekaniko industrial, ordenagailuzko diseinu espezialista eta saltzaile teknikoa daude besteak beste.

Potxo Onandia:

"Teknika dominatu ezean, koadroak jan egiten zaitu"

46 urte dituen gizon hau bizkaitarra da izatez, Getxo eta Berango arteko mugakoa. Baina egun Deban bizi da eta Elgoibarko Institutuan marrazketako klaseak ematen

dihardu. Arte ederrak ikasi zituen eta bi espezialitate egin, pintura eta grabatua. Dena den, pinturaren bideari eutsi dio eta horretan jardun ohi da bere denbora librean.

- Noiz eta nola hasi zinen margotzen?

- Betidanik izan dut marrazteko zaletasuna. Gogoratzen dut nola txikitatu testu liburuak margotzen nituen, ume askok bezala. Beraz, beti margotu izan dut. Dena den, arte ederretako karrera bukatu ondoren ez nuen espero hortik bizitzea, oso zaila iruditzen zait gainera. Profesionalki, ordea, azken urte hauetan egin dut arlo honetan lan.


- Zer gai da zure margotze gehien erabiltzen duzuna?

- Paisaiak, erretratuak eta abstraktuak. Paisaiak udaran batipat, erretratuak egiteko ez daukat garai zehatzik eta abstraktuak neguan, euria edo hotza medio kalera irten ezin naitzen. Paisaiak eta gauza figuratiboak marrazten ditudanean, inpresionismo eta espresionismoaren artean dago nire estiloa.

- Zuretzat ala jendeari begira egiten dituzu koadroak?

- Niretzat beti, dudarik gabe. Oraindik behintzat arlo honetan ez dut askatasunik galdu. Hasieran niretzat egiten ditut, ondoren jendeak gustatuz gero eta salmentan baldin badaude, eros ditzakete.

- Koadroak saldu ala



"Igande arratsalde batez pintatzen nagoen bitartean Arrate Irratia entzunez egotea jai handi bat da niretzat"

oparitu egiten dituzu?

- Biak. Familiako eta lagunei erregalatu, bestela lagunei ez ezagunei ere oparitzen nizkien, baina behin galeria komertzialen mugidan sartu naizenetik ezinezkoa zait, ez da txantxetako gauza.

- Zein prezioetan saltzen dituzu koadroak?

- Tamainuaren arabera aldatzen da salneurria. Normalean 100.000-200.000 pezeta bitartekoak dira, baina apunteak, hau da, egurrezko tabla txikiagotan egindakoak, merkeagoak

dira 40.000-50.000 inguruak. Eta oso handiak izanez gero milioi bat edo gehiagora irits daitezke.

- Euskal Herriko kanpo erakusketarik?

- Hasieran Getxon, Deban, Gernikan, hemen Euskal Herrian egin nituen. Gero Oviedo, Mexiko eta Madrilan ere erakutsi ditut nire koadroak. Bestalde, Estatu Batuetan, Checoslovakian eta Polonian ere bai, azken hauek kolektiboak.

- Zenbat lan gaur arte?

- Bostehundik gora. Etxean ere asko dauzkat

zintzilik. Batzuetan kendu eta berriak jartzen ditut aldatzea gustatzen zait eta.

- Afizioa ala ofizioa da zuretzat pintura?

- Bai afizio eta bai ofizioa. Afizioa derrigorra da margotzeko, uda nahiz negu, bero ala hotz, afiziorik ezean ezin pintatzen egon. Ofizioa ere bai, teknika dominatu behar da, bestela koadroak berak gaintu egin zaitzake eta zaila da horrela aurrera jotzea.

- Denbora libre gutzia ematen duzu margotzen?

- Gehiena bai. Niretzat igande arratsalde batez pintatzen nagoen bitartean Arrate Irratia entzunez egotea jai handi bat da. Nahiz eta familiakoak inguruan izan, ni nire estudioan pintatzen egoten naiz gustura.

- Zer isladatuko zenuke gustura koadro batean?

- Denbora eta lekua izanez gero, lientzo haundi batean jende askoren erretratuak egingo nituzke, bakoitzaren ezaugarri eta nortasuna isladatuz.

- Anekdotarik?

- Iaz, Salamanca aldean, Alba de Tormesen, pintatzen nengoela, andre bat oihuka asi zen, nik pintzelak garbitzeko erabiltzen nituen trapu zikinak, Tormes ibaira bota behar nituela pentsatu zuelako.

IRATI AGIRREAZALDEGI

kiliBARRREN

Mendaroko gehigarria

Martxoaren 22a

27. zkia.



1

F

ilabete honetako argazkia **Maritxu Unzueta** lagatakoa da. Berak esan digunez, gazte denboratan herriko jaietara joaten omen zen koadrila osoa. Herri bakoitzean argazki bat ateratzen zuten erromeriara joan aurretik. Erreturatu hau 1931.eko maiatzaren 31n atera

zuten Elgoibarren. Hona hemen argazkian azaltzen direnen izen-abizenak: ezkerretik hasita: **Maritxu Goikoetxea** (†), **Maritxu Andonegi** (†), **Nieves Goikoetxea** (lehenengoaren ahizpa) (†), **Katalina** eta **Serapia Aspe** ahizpak (†) eta **Maritxu Unzueta**.

NAHIA

ILEAPAINDEGI MISTOA

Udaberrria aldatuta garaia da!

ETA BEGIRA
ZER PREZIO!

Ile mozketa 1.500
Orrazketa eta kolorea . . 3.000

Aizu matil! zuk ere ez galdu aukera hau!

Azpilgoeta, 16 - MENDARO - Tel. 75 51 01

IRRINTZI PAPER
eta orain... **TIENDA**

FOTOKOPIAK ETA ENKUADERNA-

Azpilgoeta, 18 - MENDARO - Tel. 75 50 76



Gabiola GESTORIA

Apirilaren 1ean, Errenta Aitorpena garaia hasten da.
Guk lagunduko dizugu **LEHEN BAIT LEHEN EGITEN.**

San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 74 07 97 - ELGOIBAR

136 milioko aurrekontua du aurten Udalak

Urtero bezala, aurten ere diru kontuak dabilzki-gu esku artean. 1996ko otsailaren 29an izan zen plenoan onartu ziren aurtengo aurrekontuak. EA ez zen plenora joan, HBk aurkako botua eman zuen eta MTI abstenitu egin zen. EAJren botuekin, 1996rako 136 milioiko aurrekontua onartu zen.

Iazko eta aurtengo aurrekontuek ez dute ezberdintasun handirik. Aurten zehatz-mehatz, 136.877.000 pta.koa da. Besteak beste, Kilimon

C.D.ak 300.000 pta. gu-txiago jasoko ditu baina Udalak futbol zelaia erosi du. Euskara batzordeak, berriz, %40a gehiago jasoko du aurten 1995. urtearekin parekatuz. Gabonetako Lehiaketarako 150.000 pta.ko diru partida dago eta Mendaroko Udalak, esaterako, 25.000 pta. ematen dizkio "Proyecto hombre" delakoari.

Aurrekontuen inguruan alderdi guztiak bat etortzeko zaila izaten denez, oraingo honetan beraingana jo dugu euren iritzia jasotzeko asmoz.

1996ko UDAL AURREKONTUAK

SARRERAK

■ Zerga zuzenak	16.935.000
■ Zeharkako zergak	12.000.000
■ Tasak	21.155.000
■ Transferentzia arruntak	72.399.000
■ Ondare sarrerak	7.488.000
■ Kapitalaren transferentziak	6.900.000

GUZTIRA 136.877.000

GASTUAK

■ Pertsonal gastuak	31.565.000
■ Ondasunen erosketa eta zerbitzuak	50.470.000
■ Finantza gastuak	10.340.000
■ Transferentzia arruntak	15.250.000
■ Inbertsio errealak	26.922.000
■ Finantza pasiboak	2.330.000

GUZTIRA 136.877.000

SAILEZ

HAZIENDA

■ DEBEGESari transferentzia	1.000.000
■ Maileguen finantza gastuak	10.340.000

ZERBITZU OROKORRAK

■ Pertsonal gastuak	31.565.000
■ Ur patzuergoari transferentziak	7.000.000
■ Hilerria	1.420.000
■ Ondasunen erosketa eta zerbitzuak	8.745.000
■ Urak eta saneamenduak	3.130.000
■ Kaleetako argindarraren kontsumoa	3.675.000
■ Jubilatuen biltokia	665.000

NEKAZARITZA ETA MANKOMUNITATEA

■ Mendarozabaleko baserrietako ur hornidura	10.000.000
■ Arnoate inguruko iturrien konponketa	1.500.000
■ DEBEMENi transferentziak	800.000
■ Mankomunitateari transferentziak	5.350.000
■ GUZTIRA	17.650.000

HIRIGINTZA ETA INGURUGIROA

■ Urbanizazio gastuak	1.422.000
■ Azpilgoetako aparkalekuen erosceta	1.200.000
■ Kaleen konponketa	3.000.000
■ Azpiegitura hidraulikoa	2.800.000
■ GUZTIRA	8.422.000

ONGIZATE ETA OSASUNA

■ Etxez etxeko laguntza	2.300.000
■ Familiei dirulaguntzak	1.500.000
■ Erresidentziak	800.000
■ GUZTIRA	4.600.000

KULTURA, KIROLA, HEZKUNTZA ETA JAIK

■ Terrenuen erosceta-Kirol ekipamenduak	11.400.000
■ Herriko jaiak	5.250.000
■ Kultur eta kirol ekintzak	1.300.000
■ Ikastola	4.540.000
■ Kultur eta kirol elkarteei laguntzak	3.000.000
■ Frontoiaren hobekuntza	1.000.000
■ Kultur Etxearen hobekuntza	500.000
■ Liburutegiko liburuak	200.000
■ EKAIN II proiektua	1.400.000
■ Gizarte bermerako moduluak	500.000
■ Igeriketarako kanpaina	600.000
■ GUZTIRA	29.690.000

EUSKARA

■ KiliBARREN	600.000
■ Euskara ikasteko dirulaguntzak	200.000
■ Kirola euskaraz programa	18.000
■ Gabonetako II. Ipuin Lehiaketa	150.000
■ Bestelakoak	432.000
■ GUZTIRA	1.400.000

ALDERDIEN BALORAZIOA AURREKONTUEI BURUZ

Anton Zubiaurre (EAJ/PNV)

Arantxa Egaña (HB)

EAJk bakarrik aurkeztu dituela aurtengo aurrekontuak. Plenoko bozketetan EA ez zen aurkeztu, MTI abstenitu egin zen eta HBk kontrako botua eman zuen. Gure helburua 1996/97 urteetan dirua aurreztea litzateke, herriko plaza eraiki ahal izateko. Aurtengo aurrekontuetan euskarari diru gehiago ematea azpimarratu behar da, %40a gehiago. Gazteei dago kienean, ez dago diru partidari beraientzat aurrekontuetan baina zerbait prestatzen badute, inbertsioetatik diru bat eman diezaiekegu. Azkenengo plenoan, futbol zelaia erostea ere erabaki zen.

Nuria Ansuategi (EA)

Ez nago ados EAjk bi urtetako aurrekontuak hipotekatzeko hartutako erabakiarekin, herriko enparantza eraiki nahi dela eta. Era berean, gehiegizkoa iruditu zait milioi bat pta. gastatzea publizitate eta propagandan. Beharrezkotzat jotzen dut obra arlorako lanpostuak ateratzea (peoiak adibidez) bai eta eskola publikoan dagoen lokala habilitatzea ere, berau Udalarena baita.

Azken aurrekontuetan bezala, EAjk nahi duen eran banatu ditu diruak. Guk ez daukagu aurrekonturik aurkeztu beharrik, ez dugulako informazio nahikoa eta gure betebeharra ez delako hori, oposizioa baikara. Hirigintzari diru gehiegi ematen zaio, haundikeriarik gabe gure ustez gauzak sinpleago egin daitezke dirua beste zerbaitetan inbertituz. Ez da logikoa hiru urteko aurrekontuak hipotekatu nahi izatea plaza bat egiteko. Guk proposamen bat aurkeztu genuen euskara batzordeko partaide garenez. 2 milioi eskatu genituen eta 1.400.000 pta. bakarrik eman zitzaizkigun. %40aren igoera ez da nahikoa euskararentzat.

MTI

Adibide bat emango dugu: kiliBARRENentzako aurrekontua: 600.000 pta. Eta lau lerrotxo gai garrantzitsu hau azaltzeko? Zaila egiten zaigu hainbeste laburtzea. Horregatik, guk geuk gutxi berru banatuko dugun informazio boletinean hitzuingo dugu aurrekontu eta beste gai batzuei buruz. Besterik gabe, eskaintza hau esker-tzen dizuegu”.

Mendaroko XVII. Kross herrikoia

Datorren igandean, hilak 24, izango da Mendaroko XVII. Kross herrikoia. Hona hemen ibilbidea eta irteerako ordutegia:

- ➔ **ALEBINAK**
(1984tik aurrera jaiotakoak):
10,30etan. 1.400 m.
- ➔ **INFANTILAK** (1981-82-83):
10,45etan. 2.650 m.
- ➔ **GAZTEAK** (1978-79-80):
11,15. 5050 m.
- ➔ **HELDUAK ETA BETERANOAK**
(1977 eta aurreko urteetan jaiotakoak):
12,00etan. 9.850 m.

Irteera eta helmuga Udaletxe aurrean izango dira eta izen-ematea martxoaren 24an bertan, goizeko 9etatik aurrera izango da, lasterketa bakoitza baino ordu erdi lehenago



amaituz. Era berean, lasterketaren record-a gainditzen duenak 25.000 pta.ko saria jasoko du eta hau pert-

sona batek baino gehiagok gaintuko balu, markarik onena egiten duenarentzat izango litzateke dirua.

4

Gazteekin bilera

Herriko gazteei zuzendutako inkesta burutu da dagoeneko. Guztira 30 inkesta jaso dira, bidalitakoen %11 izanik. Gazte guztiei deitzen zaie datorren larunbatean, hilak 30, Kultur Etxean egingo den bilerara azal daitezten. Bertan, inkestaren emaitzak ezagutaraziko dira eta gazteek dituzten ekimenak proposatzeko eta helburuak finkatzeko aukera ezin hobea izango da.

Mendaroko V. Pilota Txapelketa

Palaz eta eskuz binaka izango da txapelketa. Bertan, 15 urtetik gorako bikoteek har dezakete parte bi kategoriatan banatuko direlarik. 15 eta 18 urte bitartekoa bata eta 19 urtetik gorakoa bestea. Izena emateko, Mendaroko Udaletxera edo Ormola, Txirristaka bai eta Landa tabernetara ere jo daiteke. Inskripzio kuota 2.000 pta.koa da bikoteko eta epea apirilaren 8an amaituko da.



EKAIN II turismo garapenerako proiektua

Deba, Mutriku, Elgoibar eta Mendaroko Udalen proposamenez, Deba Beheko Turismo garapenerako eskaintzaren ikerketa martxan da. Eskaintza honen ardatza EKAIN kobazuloaren berregintza litzateke eta honako hau, aipaturiko udalek dituzten beste asmo erakargarri batzuekin osatuko litzateke. Hau dela eta, datorren larunba-

tean, hilak 23, goizeko 11etan hitzaldi informatibo bat izango da Kultur Etxean eta bertan orain arte emandako pausoak jakinaraziko dira. Horrez gain, lan talde ireki bat antolatzeko asmoa dago, aipatu proiektuan Mendarok integra ditzakeen baliabide turistiko/kultural osagarriei buruzko ideiak proposatzeko.

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Oihana Tarragual eta Elena Zubiaurre.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

Rosa Mari Fidalgo

SECUC

supermerkatukoa



- **Zein janarirekin identifikatzen zara?** ▶ Identifikatu ez baina gustatu paella.
- **Gatz askoko pertsona al zara?** ▶ Ez, baina falta ere ez.
- **Noiz egiten dituzu erosketak?** ▶ Larunbat arratsaldeetan, denbora libre gehien dudalako.
- **Bazkal ostean kaferik?** ▶ Bai, beti.
- **Emakumearen eguna ospatu zenuen?** ▶ Ez, gogoratu ere ez nintzen egin.
- **Bizitzako zer izoztuko zenuke?** ▶ Pena guztiak.
- **Saltsa bat?** ▶ Momentu honetan ez zait bat ere bururatzen, ez jateko ez eta dantzatzeko ere.
- **Nor gonbidatuko zenuke bazkaltzera?** ▶ Hainbeste gonbidatuko nituzke... Richard Gere, adibidez.
- **Sagardotegira joan zara?** ▶ Aurten oraindik ez baina beste urte batzuetan joan izan naiz.
- **Zer jarriko zenuke beherapenetan?** ▶ Beharrezkoak diren produktuak.
- **Zer proposatuko zenuke komertzio handiek txikiak irents ez ditzaten?** ▶ Beharbada ordutegi aldaketa. Dena den, txikiok zerbitzu hobea eskaintzen dugu.
- **Trenez ala autoz?** ▶ Trenez, ondoan daukat eta.
- **Zein ordutan geldituko zenuke ordularia?** ▶ Goizeko 8etan, beranduago jaikitzeke.
- **Saldu ala erosi?** ▶ Biak. Kapritxoak erostea asko gustatzen zait.
- **Bazkaria ogiarekin ala gabe?** ▶ Ogiarekin.
- **Makilatzen zara?** ▶ Egun berezietan.
- **Menu bat?** ▶ Entremesak, itsasapoa plantxan eta etxeko tarta.
- **Tokiak baldintzatzen du?** ▶ Baldintzatu ez baina mugatu bai.
- **Non gustatuko litzazuke bizitzea?** ▶ Toki epelago batean.
- **Gezur asko esan dituzu?** ▶ Ez, bat ere ez.

MAITE IRIONDO

Dibortzioa

DOINUA:

Hamalau heriotzena

Instant batean lotu askotxok du lortu edozer egiteko biak beti gertu lautadatan ez baitira sekula aspertu jolasean ibili bitik hiru sortu maldan gora gerriak dituzte okertu.

Batak bestearengan laguntza onena eta bien artean landu ulermena hori bide luzea falta da kemena hobe bizkor apurtu errez sortu zena haurrak irabazi du mina eta pena.



JOSU GUENETXEA

B
E
R
R
E
T
Z
O
T
A
M

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

ZALDUA
ITURGINTZA
GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK
Urasandi 26. Tel: 74 05 30

GC
glas control s.l.
Ubitarte 7 - ELGOIBAR
Tel.: 74 30 94 - 74 35 46

HEZETASUNARI
ITOGINEI
FILTRAZIOEI
EZ
GORENGO
TEKNOLOGIA
ESTALKIAK, TERRAZAK, HODIAK, SOTOAK,
---Aurrekontuak konpromezurik
gabe---

Aukeratu dute Kultur Etxeko administrari berria

97 pertsonak eman zuten izena kultur etxeko administrari laguntzaile posturako. Halere, horietatik erdia baino ez zen frogetara aurkeztu. EGA dutenek ez zuten euskara azterketa egin beharrik izan. 19tik 12k pasatu zuten froga. Temarioari buruzko azterketa 32k egin zuten. Sei pertsonak gainditu zuten honako froga hau eta mekanografia egiterakoan, bi kanpoan geratu ziren. Elkarriketa pertsonala puntuagarria izan zen, ez eliminagarria. Oposaketako puntuei, bakoitzaren kurrikulum-a aztertu eta merituen arabera puntu guztiak batu eta gero, Nerea Ezkurra gailendu zen. Urtebeteko kontratua egingo zaio, egun osoz, eta bere lana Kultur eta Kirol teknikariei laguntzea izango da.



San Migel errekastoko obrek behin behineko geldiketa izan dute

Martxoaren 11n hasi ziren San Migelko errekastoa obrak Santa Klaran. Dena dela, orain pare bat aste obrak martxan jarri eta gero, aste honetan bertan behera geratu dira.

Obrak Huarte enpresaren esku daude. Jakina den bezala, aipatu enpresak hainbat arazo ekonomikoko dituen suspentsioa egin behar izan du. Ondorioz, obrak gelditu egin dira.

Gillermo Garate alkatearen hitzetan, "Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarri gara arazoaren berri zehatza jasotzeko asmoz. Esan digutenaren arabera, momentuz obrek geldirik jarraituko dute gutxienez Aste Santua pasatu arte".

Dirudienek, Huarte enpresak Eusko Jaurlaritzari jakinarazi zion beste 10 edo 15 egun beharko ditue-



la finantza arazoak konpondu ahal izateko eta dena bere onera etorri bezain pronto, obrei ekingo die berriz ere.

Litekeena da Huarte enpresa beste enpresa handi batek bereganatzea eta azken honen esku geratzea obra guztiak, San Migel errekastoa barne.

Konponketarik ez balego, Diputazioa lehiaketan bigarren postuan geratu zen enpresarekin harremanetan jarri eta hari emango lioke obrak jarraitu eta amaitzearen enkargua.

IMI informatika gela ixtea erabaki du Udalak

Asteazkenean, hilak 20, Mekanikan kokatua zegoen IMI informatika gelak atek itxi zituen. Udaleko iturrien arabera, arrazoi ezberdinak bultzatuta itxi dute gela. IMI sortu zenean Mekanikak lokalak utzi zituen informatika gelarako. Lokalen zesoaren truke, Mekanikak goizez erabiltzen zituen hango ordenagailuak. Itxuraz, ekipo informatikoa oso zaharkitua geratu da eta berrizatzeko 20 milioitik gorako inber-



tsioa egin beharra zeukan Udalak. "Epe motzera Udalak inbertsioari aurre egiterik ez dauka eta berritzeko diru laguntzarik

ere ez dago. Hortaz, gaur eguneko behar informatikoei egokitzen ez zen zerbitzua martxan edukitzea suposatzen zuen IMI zaba-

lik egoteak eta gainera hango langileari orain amaitu zaio kontratua". Mekanikakoak bestetik, lokal faltan zeudela kontuan hartuta, ixtea izan da Udalaren iritziz irtenbiderik arrazionalena.

IMIren faltan,ertainetako ikasleek Institutuko informatika gela erabili ahal izango dute praktikatutarako. Informatika gela erabiltzen zuten gainontzeko herritarrei begira, aurretzean zer egin daitekeen aztertzen ari da Udala.

Ibarre Torre

■ Ipar aldeko fatxada, ia hego aldeko fatxadaren bikia da. Han bezala, arku zorrotz eta gezi leiho bana daude. Halere, ipar aldekoan, biak itsutuak aurkitzen dira gaur egun eta arkua hego aldekoa baino txikiagoa da. Hauez gain, beste bi leiho dinteldu eta erantsitako txabola bat ere baditu.

■ Bertan bizi diren maizterrek aurrekoei entzun izan zieten etxea erre egin zela. Hormetan ez da beltzunerik agertzen baina goiko aldea barrurantz sartzen da, bertikala jarraitu gabe.

■ Dorretxe hau berant erdi arokoa dela esan genezake garai hartako hormak, bi arku zorrotz eta bi gezi leiho oraindik ere kontserbatzen dituelarik.

■ Ezenarro jaunak dioenez, Ibarra edo Ibarre burdinola "txikia" motakoa izan zen eta Basarte errekatxoan presa izan zuen.

■ XVI. mendeko azken aldian,

Jacobe Sagartegieta eta Maria Joan Arriola bere emaztea Ibarra dorretxe eta orubeko jabeak ziren. Jabetza haiek zituzten: burdinola eta ginbaleta edo barrena, soroak, zelaiak, sagastiak, gaztainadiak, fruitu-arbolak, mendiak eta sasiarteak.

■ XVII. mendearen erdi aldean Jacobo Sagartietak hil egin zen eta burdinola denbora batez geldi egin zen. Haren semea zen Jacoboren emazteak, Ana Atxaranek zorrak zituenez burdinola berriz ere martxan jarri zuten. Ondoren Bartolome Sagartietak jarraitu zuen jabetzarekin.

■ XIX. mendeko dokumentuetan Ibarre etxea, errota eta gibaleta edo barrena-etxea ere aipatzen dira, jabea Domingo Martin Arriola izanik. Harrezkero, Debako Astibiarrek izan zuten jabetza eta egun Irustak.

PELLO ARRIETA



Anastasia Albizu Arrillaga (1900-1979)



● Mendaron jaio zen 1900eko apirilaren 15ean.

● Oso gazte hasi zen lanean. Lehenengo zerbitzatzen, Elgoibarko Amoroarren etxean. Gero alpargatak josten aritu zen eta beranduago kazaginan. Felix Zubizarretaren tailerrean ere jardun zuen lanean.

● Francisco Aiestaranekin ezkondu eta Elgoibarrera etorri zen bizitzera.

● Errekadista lanari ekin zion. Bilbora egiten zituen joan-etorriak lan-tegiek eskatutako errekaduak egiteko bai eta partikularrenak ere.

● Trena erabiltzen zuen Anastasiak Bilbora joateko. Goizean goiz joan eta gauean egiten zuen buelta.

● Errekadista lanari esker familia osoa atera zuen aurrera.

● Gazte alargundu zen. Hala ere, lanean jarraitu zuen eta pozik bizi zela aitortzen zuen. 28 bat urte eman zituen errekadista lanean. Edadean aurrera egin zueneko garaia izan zen hobetoen bizi izan zen sasoi.

● 1979ko irailaren 10ean hil zen.



EGONDO, S.L.

METALEZKO ERAIKUNTZAK
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Olasope kalea 3. blokea ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

Maria Urizar

ileapaindegia
eta solariuma

Errosario 9-1ezk.

☎ 74 44 89 ELGOIBAR

XABIER

ILEAPAINDEGIA

*Eskatu
eguna eta ordua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

MOTZAK

Pilota txapelketa

Joan den zapatuko eskolarteko pilota txapelketako eskuz binakako norgehiagokan Elgoibar, Deba eta Plazentziakoen arteko zortzi partidu jokatu ziren benjamin, alebin, infantil eta kadete mailetan. Benjamin B mailan elgoibartarrek 8 eta 18 galdu zuten debarren aurka. A mailan berriz, sorluzetarrak nagusitu ziren 6 eta 18 elgoibartarren aurrean. Infantil B mailan 18 tantu lortu zuten elgoibartarrek eta 11 debarrek. A taldean, berriz, Debakoek irabazi zieten elgoibartarrei. Azkenik, kadeteetan, A eta B taldeetan jokatu ziren bi partiduak irabazi zituzten Elgoibarko bikoteek. Bestalde, Intxaurrendoko Neguko txapelketan Leon I.ak eta Garatek bost tantuko errentaz irabazi zieten añorgarrei. Hortaz, finalaurdenak jokatzeo aukera izango dute elgoibartarrek.

Mintxetako tabernarako bigarren deialdia

Udal Kirol Patronatuak Mintxetarako garbitasun eta mantenturako postuak betetzeko lau eskakizun jaso ditu. Tabernaren esplotaziorako, ordea, ez da eskaera bat bera ere jaso. Horregatik bigarren deialdia egitea erabaki du Patronatuak, 90.000 pta.ko errenta erdira jaitsi duelarik, 45.000 pta.ra, alegia. Ezinbesteko baldintza izango da euskara jakitea. Eskaerak aurkezteko azken eguna apirilaren 18a da eta proposamenak Udal Patronatuaren egoitzan (Nafarroa Plaza 3) laga beharko dira. Eskaera guztiak jaso eta aztertu ondoren jakinaraziko du Udalak nori eman zaion zerbitzuen ustiakuntzaren ardura.



Amaia Jauregi:

"Taldeko jokua falta da Eibarko ekipoan"

■ **Elgoibarko eskubaloitaldetik Eibarrera. Zer dela eta?** - Eibarkuek deitxu ziguten Elgoibarko ekipo bost pertsonari ia nahi gendun hara jutia. Entrenadoriakin hitz egin genuen eta lauk hara jutia erabaki gendun hiru hilabeterako.


■ **Zer esperantzarekin?** - Ikastia espero dogu. Partiduak presio gehixaokin jokatzen dia eta jendiak hobeto jokatzen dau. Hobeto jokatzen dabenengandik ikasi leike.

■ **Zer moduz hilabete hau?** - Kategorixa altuaua da eta oso ondo dabiz. Geratzen diazen zortzi partiduak irabaziz gero Espainiako txapelketan jokatuko dogu.

■ **Datorren denboraldian Elgoibarren jubenetan?** - Bai. Gainera neska talde bat eukiko dugu kadetietan eta jubenetan. Oin arte jubenilik ez zaukagulako ez ziguten uzten Liga Vascara igotzen baina datorren urtian territorialeko partiduak irabazten baditxugu igo eingo gera.

■ **Hasieran bankiloan egotea tokatzen da.** - Ba, gure kasuan ez da hola izan. Oin arte hiru partidu jokatu douz eta jokatzen jarraitxuko dogu. Harritxu ein ginan hain goiz jolasten hasi ginalako.

■ **Ardura handiagoa orain?** - Piska bat bai. Partiduak ez dia berdinak. Lehen nahiko errez irabazten



gendun, oin gogorra da, maila altuaua dao.

■ **Espainiako txapelketa jokatzea ez da lorpen makala.** - Guri ilusio haundixa ematen digu. Gainera kanpora jungo ginake jokatzerara. Lehenengo "sektoria" jokatzen da eta lehenengo edo bigarren gelditxu ezkerok kanpora jokatzerara juten zera.

■ **Kadeteen taldean zuen hutsunea igarriko dela uste duzu?** - Ez, ze gaztiauak ere badaude. Pilo bat neska geunden taldean, eta gu jun geranian hasi dia jokatzen.

■ **Zer eramango zenuke Elgoibartik Eibarrera?** - Elgoibarren ekipoan jokatzen gendun eta Eibarren bakarka jokatzen da batez ere.

■ **Eta ekarri?** - Bakarka jokatzeo ahalmena, bakoitzak bere aldetik gehixo esforzatzea.

■ **Penarik Elgoibarko taldea uztegitik?** - Ez gehiegi, ze Elgoibarren jarraitzen dogu entrenatzen astian bi egun eta beste bi egun Eibarren entrenatzen dogu. Eibarren entrenamenduak seriuauak diaz, hamen katxondeo gehixo zauan.

• **Adina: 16**
 • **Partidu txar bat irabazi ala on bat galdu? Ona ala txarra izan, ahal bada beti irabazi**
 • **Atsedenerako egun bat? Igandea**
 • **Zaletasunak? Deporte danak eta telebista.**

MINTURAK
 PEDRO PEREZ BERISTAIN
 San Roke, 30 behea. ☎ 74 36 52 - 74 27 89
 KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

OIERKI IGONGAILUAK
 Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua
 ☎ (943) 11 35 15 • ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
 Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

Ehizarako eta txakurren heziketarako zona bereziak prestatzen ari da Aldundia

Aldundiak eta Ehiza Federazioak aspalditik zuten ehiza kontrolatua eta txakurren heziketarako leku berezi bat sortzeko asmoa. Leku ezberdinak aztertu ziren, Kalamua tartean, eta azkenean, Izarraitzeko zonaldea aukeratu zen kontrolpeko ehizarako. Txakurren heziketarako gunea eta ehiza-ibilbidearena Larraskandan kokatuko da.

La Unionek adierazitako-aren arabera, badirudi aurtent jarriko dela martxan proiektua. Esperientzia hau Tolosaldean burutu da eta asmoa Izarraitze eta Larraskanda inguruan antzeko zerbait egitea da. **Izarraitzen ehiza kontrolatua**



Elgoibar, ehizatzeko bosgarren zonaren barruan dago, Mutriku, Deba-Itziar, Mendaro, Eibar, Azpeitia, Azkoitia eta Zestuekin batera. Ehiza kontrolatuaren zona Izarraitzen kokatuko da, Azpeitia, Azkoitia eta Zesturaino hedatzen den lur zatian. Untxiak, erbiak, faisaiak, eperrak, eta agian txoka eta orkatzen bat ere askatuko dira.

La Unión Ehiza Elkarteko arduradunen esanetan “argi utzi behar da zona hau ez dela ehiza barruti bat, koto bat, alegia. Edo-nork ehizatu ahal izango du”. Ehizarako orduan hala ere, arau batzuk ezarriko dira eta berauek errespetatu egin beharko dituzte ehiztariek. “Hegaztiak eta untxiek denbora bat behar dute hango lurretara egokitze-ko. Tarte horretan txakur-ekin ez ibiltzea eta tiro-rik ez botatzea eskatuko

zaie ehiztariei. Behin espezie horiek zona horretan sustraitzen direnean ehizatzeko baimenak banatuko dira. Gainontzeko espezieak ehizatzea libre izango da”. Ehiza kontrolatua izango denez, ehiztariek harrapatu-takoaren berri eman beharko dute.

Gestioaz elkarteak arduratuko dira, txandaka. La Unión-ekoek azaldu dutenez “boluntario ugari beharko da guzti honen antolakuntza eta segimendua egiteko”.

Txakurren heziketa

Larraskandan, Aldundiaren lurretan, izango du kokalekua txakurren heziketarako eta ehiza-ibilbiderako gunek. Pertsona bat egongo da arduradun eta ehiztariak txakur-ekin bertara joan nahi duenean abisua eman beharko dio hango arduradunari eta honek txoriak askatuko ditu txakurak ehiza ditzan. Honekin batera, ehiza-ibilbideak jarriko dira. Belar eta zuhaitzen artean ezkutatutako tresna batzuetatik plater moduko batzuk ateratzen dira, animalia ezberdinak bailiran, ehiz-atariek tiro egiteko. Inguruan, txabola bat erai-kitzeko asmoa dute, aterpetxe modura.

Futbola

Elgoibar 2 - Union Txiki 0 (**Kadeteak**)
Elgoibar 0 - Mondra 1 (**Jubenilak**)
Elgoibar 0 - Anaitasuna 0 (**1. errej.**)
Elgoibar 4 - Dunboa 3 (**Neskak**)
Elgoibar 2 - Zarautz 1 (**Infantilak**)
Zorroza 0 - **Haundi** 0

Eskubaloia

Usurbil 8 - Elgoibar 18 (**Kad. neskak**)
Aloña Mendi 14 - Elgoibar 31 (**Kad. mutilak**)
Elgoibar 20 - Legazpi 19 (**Jubenilak**)

Areto Futbola

Gure Txokoa 1 - Elgoibar 2 (**2. maila**)
Nerea 1 - Elgoibar 1 (**1. maila**)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 23

12,00 S.D. Eibar - Sporting Herrera (**Kadeteak**)
13,45 Gazteak - Munibe (**Jubenilak**)
17,00 Elgoibar - Touring (**1. erreg.**)
18,45 Eibartarrak - Urki A (**Jubenilak**)

Igandea, 24

10,00 S.D. Eibar - Hernani (**Jubenilak**)
12,00 S.D. Eibar - Gure Ametsa (**Erreg.**)
13,45 Urki - Soraluze (**Erreg.**)
16,30 Beti Sutan - Aloñemandi (**Erreg.**)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 23

16,00 Elgoibar - Bidebieta (**Kad. mutilak**)
17,30 Elgoibar - Pulpo (**Kad. neskak**)

Saskibaloia, Kiroldegian

Larunbata, 23

19,00 Txankakua S.T. - Orio

Futbitoa, Urasandin

Igandea, 24 Arbitraia: Oraiko Disko

09,00 S. Pitxote - Ikus Optika
Rebel Urbi - S. Karapola

10,00 Aterpe - Ametsa

Udaberri - Berrogei Duro

Arbitraia: Udaberri

11,00 Karkis Kosakos

Orbela - Oraiko Disko

12,00 P.S.K. - Aldavas

Sanroketarra - Kin Kong

Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 22

22,00 Elgoibar - C. Urarte (**2. maila**)
23,00 Elgoibar - Cactus Yoogers (**1. maila**)

Pilota, Ikastolako frontoian

Ostirala, 22 gaueko 10etan hasita

Gaztetxoak: Arrillaga/Orbea II (Lagunak)

- Lariz/Antxia II (Elgeta)

Gazteak: Leon I/Garate (Lagunak)

- Ubera II/Antxia I (Elgeta)

Nagusiak: Ansola/Alzibar (Lagunak)

- Ubera I/Barrigon (Elgeta)

Udal Kirol Patronatua martxan dago

Udal Kirol Patronatua aurtengo urtarriletik dago martxan. Udalaren baitan dagoen erakunde autonomoa da Patronatua, ekintzen antolakuntza, kontratazioa, instalakuntzen ustiakuntza etab.en gestioa arintzeko asmotan sortua. Aurrekontu propioa dauka eta diru sarrerak ere Patronatuak berak gestionatzen ditu.

Patronatuaren zereginen artean daude kirol iharduerak eta elkarteak bultzatzea, kirola herritarrei urreratzea, eskolarteko ekintzak eta txapelketak antolatzea etab. Herriko udal instalazio guztiak ere Patronatuaren esku daude: Mintxeta, Kiroldegia, ikastetxe publikoetako instalazioak, auzoetako kirol lekuak, Tenis pista...

Kirol gaiei lotutako gaien gestioa askoz arinagoa izango da, ez baita beharrezkoa izango gai bakoitza batzordez batzorde aztertzea. Erabakiak Gobernu Batzorde edo Junta Erretore batek hartzen



Herriko udal kirol instalazio guztiak gestionatuko ditu Patronatuak.

ditu. Presidente bat dago: Gillermo Garate alkatea, eta presidenteordea: Gotzon Arrieta, biak PNVkoak. Junta Erretoreko gainontzeko kideak Udalean ordezkariak duten alderdietako ordezkariak osatzen dute (HB, EA, PNV eta PSEko bana), zinegotzi kopuruaren arabera. Hauez gain, PPko eta IU/EBko zinegotziak, Udaletxeko interbentorea eta idazkaria ere bileretara joan daitezke, baina ez dute erabaki ahalmenik. Dagoeneko bi aldiz bildu da batzordea, eta besteak


beste, Mintxetako taberna eta mantenurako postuak lehiaketara ateratzea eta muskulazio gelarako makina berriak erostea erabaki dute. Hilero-ko dinamikan, batzordean erabakitzen dira kirol gaiei buruzko gorabeherak. Ramon Mujika kirol teknikaria da Patronatuko zuzendaria.

Patronatuak logotipo propioa dauka eta egoitza Kultur Etxean du, (Nafarroa Plaza 3).

14 judoka sailkatu dira Eskolarteko Gipuzkoako Judo finalerako

Alebin eta infantil mailako 14 judoka sailkatu dira Ibai Klubetik datorren maiatzaren 18an Donostian jokatu den Gipuzkoako Eskolarteko Judo Txapelketarako. Finalean parte hartu ahal izateko puntu mordoska eskuratu behar izan dituzte Ibakoek, Arrasaten, Elgoibarren, Azpeitian eta Ondarrun izan diren txapelketan.


Sailkatu direnen zerrenda: infantiletan Egoitz Mora, Josu Idiakex, Zuhaitz Azpiazu, Ganix Ostolaza, Xabi González, Esther Idiakex eta Erlantz Martinez. Alebinetan Maialen Mora, Aitor Gabilondo, Javi Muñoz, Zuriñe Polo, Maria Idiakex, Aitor Mugerza eta Mikel Muñoz.



Desagertutako Elgoibarko baserrien bilduma erakutsiko du Azpilikuetak

Dokumentu benetan interesgarria osatzen du hilaren 29tik aurrera Kultur Etxeko erakusgelan Antonio Azpilikuetak ikusgai ipiniko duen Elgoibarko baserrien argazki bildumak. “Desagertutako baserriak eta Erreportaiak” izenburua daraman bilduma 23 erretratuk osatzen dute, zuri-beltzean, sepia kolorearekin an-

tzinako itxura dutenak. Guztiak dira 1968. urtea baino lehen ateratakoak, “hiru bat urtetan burututako lana” dela esan digu Azpilikuetak. Datoren ostiraletik aurrera ikusgai egongo diren baserrietatik, asko eta asko desagertuta daude gaur egun. Erakusketaren inaugurazioa hilaren 29an izango da, arratsaldeko 7etan.



Palazio baserria argazkian. Erakusketan ikusgai egongo da beste 22rekin batera.

Kilometroak 96ko eta Elgoibar-ko 650. urteurreneko ekitaldien barruan, Gure Dantzak izeneko dantza ikuskizuna plazaratuko da Elgoibarren hil honen 31n. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Zuberoako dantza taldeen jardunak osatzen dute Gure Dantzak izeneko ikuskizuna. Haritz Dantzari taldekoek Gipuzkoako dantzarik adierazgarrienak erakutsiko dituzte. Arabarren ordezkari gisa, Eltziegoko Dantza Taldeak jardungo du, kalejirak, Dantza, Lau Kaleak, Zuhaitza eta Jota dantzatuko dutelarik.



Lezoko musik Eskolako taldeen kontzertua

Lezoko Tomas Garbizu musik Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute igandean, hilak 24, Herriko Antzokian. Eguerdiko 12,30etan hasiko den saioan lehenik txistu taldeak hiru pieza joko ditu. Segidan perkusio taldeak lau obra eskainiko ditu. Kontzertuaren hirugarren zatian bi pieza joko ditu akordeoi taldeak eta amaitzeko, orkestrak Bizet-en Carmen eta Tschai-kowsky-ren vals bat eskainiko ditu. Lezotarrak Elgoibarren izango dira “Musika eta Pedagogi Astea-Lezoinu 96” programaren barruan. Martxoaren 1ean hasi zen Musika Astea Elgoibarko Inazio Bereziartua musik Eskolako Perkusio taldea, Txistu taldea, Akordei taldea eta Gazteen Bandak Lezon kontzertua eman zuten.

Donostia Hiria piano saria Elgoibarrera

Inazio Bereziartua musik Eskolako ikasle librea eta Donostiako Kontserbatorioko ikasle ofiziala den Miren Gorrotxategi elgoibartarrak “Donostia Hiria” piano lehiaketan bigarren saria irabazi du. Aipatu behar lehenengo eta hirugarren sariak ez ematea erabaki zutela epamahaikoek. Bigarren saria ezezik, gipuzkoar onenaren sailaren barruan ere, lehen saria merezi izan zuen Mirenek. Zorionak!



ZEHARKA

Pasa den astean eman genuen Urasandiko Fundizioaren berri. Abenduan hasita, bertan bost musika talde elgoibartar jo eta ke entsaitzen ari direla ere aipatu genuen. Oraingo honetan, Fundizioan bertan izan gara eta sortu berri den talde gazte batekin aritu ginen berbetan. *Zeharka* deitzen dira, nahiz eta behin behineko izena izan. 16 eta 23 urte bitarteko bost mutilek osatzen dute taldea. Eta guztiak gustura baino gusturago ematen dute denbora gitarra eta bateria hotsen artean. Batek daki aurretik geratzen zaien bideak zer emango dien. Ilusiorik behintzat ez zaie falta.

- Zeharka izenak ba al du esanahi berezirik?

- Ez. Lokala lortzerakoan taldeak izena izan behar zuen eta besterik okurritzen ez zitzaigunez, Zeharka jartzea erabaki genuen. Dena dela, behin-behineko izena da, aurrera begira aldatzeko asmoa daukagu, izan ere, gazteleraz abestuko baitugu.

- Dagoeneko ba al daukazue abesti propiorik?

ZEHARKA

SORRERA URTEA: 1995

MUSIKA MOTA: denetik baina batez ere rock and roll-a.

GUSTUKO TALDEAK:

Extremoduro, Pearl Jam, Pantera, Escorbuto, Parabellum...

PARTAIDEAK: Iñigo

Barrenetxea (bateria) 18 urte; Noel Rodriguez (gitarra) 19 urte, Aritz Tadeo (gitarra) 18 urte; Miguel Alvarez (ahotsa) 23 urte eta Dani Soto (gitarra) 16 urte.

LOKALA:

Urasandiko fundizioa.



- Bat edo beste bai baina momentuz instrumentu guztiekin jotzeko bezain landuak ez daude, horretan gabiltza. Guztion artean egiten ditugu, bai letra bai eta musika ere.

- Eta letrek, zeri buruz hitzegiten dute?

- Denetik, egoera sozialari buruz eta, batez ere, maitasunari buruz.

- Momentuz zer da zuentzat musika?

- Hobby bat. Oso ondo pasatzen dugu elkarrekin eta txoko bat daukagu elkarrekin egoteko. Hau guztia ondo ateratzen bada primeran eta bestela, hobby bat izaten jarraituko du.

- Gustura Fundizioan?

- Bai, eskertzekoa da gutxienez lokal hau eman izana Udalak. Hasieran egoera oso txarrean zegoen dena baina poliki-poliki gure erara egokitzen joan gara eta momentuz nahiko ondo dago, oraĩndik ere zenbait ikutu behar dituen arren.

- Noiz arte hemen?

- Udalak esan arte. Momentuz pare bat urterako izan dela agindu digute, proiektua martxan jarri arte. Espero dugu aurrera begira, eta esperientzia hau bide onetik joaten bada, Udalak beste lokalen batzuk eskaintzea herriko musika taldeei. Eibar eta Ermuan laguntza handia jasotzen dute, lokalak ezezik baita ekipoa erosteko orduan ere. Ez legoke bat ere gaizki hemen gauza bera egitea. Momentuz, argia hain azkar ez moztearekin konformatuko ginateke. Nahiz eta musika jotzeari 9,30etan utzi, hortik aurrera ere beste gauza asko egin daitezke eta argirik gabe ezinezkoa da.

- Musika talde bat sortzea garestia al da?

- Bai, eta txarrena da dena gastua dela, dirurik ez baitu ematen. Baina, diru piskat aurreztu eta berau ekipoa inbertitzen dugu. Gutxienez dibertitu egiten gara. Elkartzeko txoko bat daukagu eta gustatzen zaiuzuna egiteko aukera.

Garajeak

Garaje ERDI-ITXI bat saltzen dut pista beltzean.
☎ 74 00 39

Garaje ITXI bat saltzen da Arregitorren.
☎ 74 30 81

LOKAL BAT alokatzen dut Madalan, almazenerako aproposa.
☎ 74 13 84

Garaje ITXI BAT alokatzen dut pista beltzean.
☎ 74 20 09 (gauez)

Lana

INFORMATIKAKo klaseak emateko pertsona bat behar da. (Programazioa, eta programaz de utilidades) Bidali kurikulumak Bergarako 245 P. K.

ZIENTZIA ALORREKO KLASEAK emateko pertsona bat behar da. Bidali kurikulumak Bergarako 245 P. K.

PERTSONA NAGUSIAK zainduke lituzkeen emakume heldu bat naiz.
☎ 74 04 75

ETXEKO LANAK egiteko edo HAUR BAT ZAINTEZKO prest nago.
☎ 74 05 32 Zoila

PROPAGANDA BANATZEKO jendea behar dut.
☎ 74 30 37 (Deitu 10,00-13,00)

GARBIKETA lanak egiten ditut, orokorrak, leihoak eta obra bukaerako garbiketak.
☎ 74 39 63 Alicia

Salerosketak

BOXER TXAKURKUMEAK salgai.
☎ 74 28 68
(21,30etatik aurrera)

Bigarren eskuko ARGAZKI KAMERA bat saltzen dut. PRAKTIKA BX20. Egoera onean. 15.000 pta.
☎ 74 41 12 Jasone

Bigarren eskuko KOTXESILLA BAT behar dut. Egoera onean.
☎ 74 35 33 Antonia

IZOTZAK EGITEKO MAKINA eta MAKINA ERREGISTRADOREA salgai.
☎ 74 38 85 Gloria

Martxan dagoen BODEGA/ARDANDEGI bat saldu edo alokatzen dut Ondarroan. 125 m².
☎ (94) 683 12 02

LOGELA BAT saltzen dut. Bi ohe 1,20koak, armarioa eta mesilak. Egoera onean.
☎ 74 21 43 Kontxi

Bestelakoak

Umeen eskolako bata bat, txupete handi bat, arrosa koloreko galtzerdiak eta pololo batzuk zituen plastikozko boltsa bat galdu dut.
☎ 74 21 64

ILEAPAINDEGI BAT alokatzen da Eibarren. Guztiz ekipatua.
☎ 10 83 94

Partikularrak

OHOkO Klase partikularrak ematen ditut Mendaron.
☎ 75 51 04 Ana (Arratsalde)

Agurrak

Zorionak amama Pepitari martxoaren 19an bere urtebetetzea izan zelako. Asier eta Aitorren partez.

Zorionak Julen izeneko anaitxoia izan duen Ikastolako 4. mailako Jon Pérez Cortés-i. Jonatan eta Janireren partez.

Zorionak Elizabeth Benitori apirilaren 1ean eta Ane Garitaonaindiari apirilaren 4an 11 urte egingo dituztelako. 5. mailako adiskideen partez.

Zorionak Juani hilaren 19an Aitaren eguna izan zelako. Yolandaren partez.

Zorionak Kaiet Blancori martxoaren 25ean 14 urte egiten dituelako. Bere gelako guztien partez.

Martxoak 21ean eta 31ean urteak egiten dituzten Galarza Txiki eta Galarza Handiri, Zorionak bere familiaren partez.

Apirilak 3an urteak betetzen dituen Eire Vilari Zorionak bostgarren mailako partez.

Zorionak martxoaren 22an urteak beteko dituen Amaia Epelderi bere alaba eta adiskideen partez. Ainara.

Etxebizitzak

Jantzitako pisu handi bat daukat alokatzeko.
☎ 74 04 75

Bi irakasle gara eta pisu bat alokatu nahi dugu.
☎ 10 85 44 Patxi (goizez 9-13)

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning-a742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitalea756264
Drogomenpekotasun Z.741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Udal Kirol Patronatua..744415
Kultura Zerbitzua742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikiroldegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia.....740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola.....74 21 41
Herri Eskola74 08 79
I.M.H.74 41 32
Instituta74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 27 59
El Correo Español...74 10 82
Egin.....10 84 21
Zazpiki irratia74 34 74

22 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“Show girls”

23 LARUNBATA

11,30 ZAZPIKI IRRATIAREN
BILERA

✓ Zazpikiko lokaletan

16,00 LARUNBATERO AISIALDI
PROGRAMA

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: AtxutxiamaiKa
Begirale Taldea

19,30-22,15 ZINEA

“Show girls”

24 IGANDEA

12,30 LEZOKO
MUSIKESKOLAKOEN
KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

16,30 ZINEA

“Babe, el cerdito valiente”

19,30-22,15 ZINEA

“Show girls”

25 ASTELEHENA

21,00 EAJren URTEKO
BATZARRA

✓ Plazako Batzokian

22,15 ZINEA

“Show girls”

26 ASTEARTEA

22,00 ZINEA

“Babe, el cerdito valiente”

29 OSTIRALA

19,00 ARGAZKI ERAKUSKETA

Egilea: Antonio Azpilikueta

Gaia: Desagertutako baserriak eta
erreportaiak

✓ Kultur Etxean

22,15 ZINEA

“La isla de las cabezas cortadas”

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
23, larunbata:	Etxeberria	Zabaleta
24, igandea:	Etxeberria	Zabaleta
25, astelehena:	Ormazabal	Escala
26, asteartea:	Ormazabal	Escala
27, asteazkena:	Ormazabal	Escala
28, osteguna:	Ormazabal	Escala
29, ostirala:	Yudego	Anduaga

FARMAZIEN HELBIDEAK:

Zabaleta: Kalebarren 9, Plazentzia
Te. 75 13 84 1

Anduaga: Mendarozabal 1, Mendaro
Tel. 75 61 42/75 60 27

OKINDEGIA:

24, igandea: IDARRAGA

ZineA

Show girls

Zuzendaria: Paul
Verhoeven
Antzezleak: Elizabeth
Berkley, Kyle
MacLachlan, Gina
Gershon.

Nomi Malone Las Vegas-

era heltzen da arrakasta eta ospearen bila. Striptease klub batean hasten da lanean eta klubeko erretserbatuetan “lap dance” egiten du, soldataz gain, diru apur bat ateratzeko. Las Vegas-eko show handien munduan murgilduta, Zack ezagutuko du, Stardust izeneko leku baten jabea dena eta ospea ekar diezaiokeen gizona.



Babe, el cerdito valiente

Zuzendaria: Chris Noonan

Babe, txerritegi industrial batean bizi den txerriak bere patua aldatzea lortuko du. Ardien artzai bihurtu eta pozik bizitzeko aukera izango du, lagunez inguraturik, granja batean. Haur baten inozentziarekin guztien bizimodua aldaraziko du Babe txerri ausartak.



IBAI KLUBA

Kirolariak formatzeaz gain, fisikoki hezitzen ditugu

JUDO

TAEKWONDO

WING-TSUN

AEROBIC

MANTENU GIMNASIA

GIMNASIA ERRITMIKOA

MUSKULAZIOA



Martxoan zehar prezio bereziak Mantenu Gimnasia
matrikula dohainik eta 1.500 ptako kuota

SANTA ANA, 46 - ELGOIBAR - TEL. 74 07 93



BITXIDENDA

Gabonetan zozketatutako urrezko bi erlojuen irabazleak argazkian ditugun **Andoni Larreategi** eta **Nati Garitano** izan dira. Mila esker bezero guztioi



ESKAINZA BEREZIA *Aranburu bitxidendak denda bisitatzera gonbidatzen ditu bezero guztiak aurki egingo den eskaintza berezira.*

Bitxien berriztatzea dela eta, zenbait artikulu prezio oso interesgarrian aurkitu ahal izango dira apirilaren 1etik maiatzaren 31ra arte.





Lizzy MODAK

Udaberria da.
Sasoiko jantzirik aproposenak

Errosario, 25 - Tel. 74 23 02 - ELGOIBAR

UDA BERRIA HEMEN eta ORAIN



GARATE

Jantzi - Denda

Kolorez jantziriko
moda gaztea

Bartolome Deuna, 13 - Tel. 74 11 29 - ELGOIBAR



GRANDAL

Barruko itxura
aldatzeko garaia da

Errosario, 8 - Tel. 74 35 95 - ELGOIBAR



LITTLE KISS



MLXI kirolak

Kirolerako
zure estilo berria

Arrillaga, 14 - Tel. 74 01 80 - ELGOIBAR



Adin guztietarako
erropak

San Frantzisko, 8 - Tel. 74 35 95 - ELGOIBAR